



**EUSKO
IKASKUNTZA**

MAIRUAREN ALARDEA

“Antzuolako Alardearen lehena, oraina eta geroa”

**Margaret Bullen
Xabier Kerexeta**

**AZTERKETA HISTORIKO ETA IKERLAN SOZIOKULTURALAREN LABURPENA:
konklusio modura**

Antzuolako Mairuaren Alardearen azterketa honen bidez, hausnarketa luze eta sakon bat egin dugu, ikuspegi historiko batetik nahiz perspektiba soziokulturaletatik. Hausnarketa honetan Mairuaren Alardearen antzinako historia eta garai modernoaren eboluzioa aztertu dugu, Alardeak lehen zein orain izan duen esanahia jakiteko asmotan. Iraganean kokatzen da azterketaren lehenengo atala, eta hortik abiatuta egin dugu gaur egunean Alardeari buruzko oraingo balorazioa. Lehena eta oraina, zalantzarik gabe, dira azterketaren ardatz nagusienak: ardatz hauek geroa argiago ikusten eta Alardearen, hots Antzuolaren etorkizuna diseinatzen lagunduko digute. Egindako azterketan oinarrituak dira aurkeztuko ditugun proposamenak; horregatik, proposamenak azaldu, eztabaidatu eta adostu baino lehen, ikerlan honen ondorio nagusienak ulertzea ezinbestekoa da. Hori da, hain zuzen, dokumentu honen helburua: azterlanaren laburpena egitea.

Hona azterlanaren laburpena, konklusio modura: lehenik, azterlan historikoarena; bigarrenik, ikerlan soziokulturalarena.

AZTERKETA HISTORIKOA

Laburpen honetan ere merezi du adieraztea txostenean lehendabiziko ohar modura azaldutakoa, hots, historiak erreferenteak ematen dituela, lagungarri izan daitekeela, baina arazo historikoa ez dela arazoaren funts eta mamia, eta azterketa antropologikoaren baitan txertatu behar dela ulertuko bada eta eraginkortasunik izango badu.

Azterketa historikoa hiru terminoetatik abiatuta egin da.

Antzuola hitzetik abiatuta:

Antzuolako Mairuaren Alardea antzuolar komunitatearen urteroko ohiko autoafirmazio errito nagusia da, Antzuolaren historian eta nortasun ezaugarrietan oinarritua. Nortasun hori errepresentatzen/aldarrikatzen lehenago hasia bazen ere, XVII. mendean finkatua da, Antzuolak hiri titulua eskuratzean, Gipuzkoako gainerako hiri, hots, udalen parean jartzean, finkatu ere, Antzuolak besteak bezainbeste zela erakusteko beharra sentitzen zuen eta.

Foru garaiko Gipuzkoan kontzeptu hau, berdintasun juridikoarena, baitezpadakoa zen: gipuzkoar guztiak, hau da, jatorria gipuzkoar etxeetan zuten guztiak aitonen seme zirenez, ezin eraman "azpikoak" bertakotzea, bertakoak ez "kutsatzearren", ez eta "goikoek" gehiago zirela onartzerik ere. Erregimen Zaharreko ideologian, odol "garbia" edota "zikina" biologikoa baino are gehiago, erlijiosoa zen, kristautasunari lotua, baina jatorriari begira betiere.

Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, mitologia politiko oso bat eraiki zen kontzeptu horien gainean, "kantabrismo" izenez ezaguna, non jatorrizko euskaldunen araztasun biologiko/erlijiosoa erromatarren garaietaraino eramaten baitzuen; areago, erromatarrek haien garaitzerik izan ez zutelako uste osoa zabaldu zuten, historia erabiliz. Hain zuzen horrexegatik da mitologia politikoa, sineskeriak ez baina historiak berarekin zerman "egiaren" zaman oinarritzen zelako. Ez da inondik inora euskaldunen ezaugarri eksklusiboa, baina bai izan zituela bereizgarri propioak Euskal Herrian, Gipuzkoan eta Bizkaian batik bat, foru-sistemari estu loturik.

XVII. mendeko Antzuolak bete-betean erantzun zion bere garaiko eta inguruko pentsamolde kolektiboaren eraikuntzari: antzinako jatorri noblea Gipuzkoari zuzenean loturik, armarrian adierazten da hobekien: armarrria bera ez ezik (errege eta kanoiak), armarrriaren XVIII.eko ziurtagiriak gipuzkoarrek erromatarrek azpiratu omen zituzten garaiak ditu aipagai.

Mairu hitzetik abiatuta:

Kantabrismoa ez zen XVII. mendeko kontzeptu ideologiko bakarra. Austriarren Inperioan kokatu izanak bestelako aukerak ematen zizkien gipuzkoarrei, itsasoan zein lehorrean, eta mugan bertan. Antzuolak mugarik ez itsasorik ez zuenez, etsaitasunaren prototipoari heldu zion: mairuari, alegia, "bestearen" errepresentazioari. Mairuen presentzia Iberiar Penintsulan historikoki dokumentatua, hedatua eta garrantzi kultural (hitzaren zentzurik zabalenean) ikaragarri handikoa izanagatik, ez da mairu "historikoa" borrokatzen, "bestearen" errepresentazio mitikoa baizik. Mairua pertsonaia historiko bezala ez baina izaki mitiko bezala oso hedatua egon da pentsamolde tradizionalan XX. mende bukaera arte, pentsamolde tradizionalak iraun bitarte behintzat, Pirinioetatik Galiziaraino, eta oinarria historikoa ez baina mitikoa dela adierazgarri, orain datu bakarra: mairuak omen dira historiaurreko megalitoen egileak. Euskal Herrian holako adibide ugari daude.

Pertsonaia mitiko gisa koreografiatan agertzen denean, inauterietan eta solstizioetara loturiko jaietan agertzen da bereziki mairua, eta bi ezaugarri nagusi izan ohi ditu: belztasuna eta urrea. Belztasuna gauari, atzerritarrari, zikintasun fisiko edo espiritualari ere loturik ager daiteke; baina urrea normalean aberastasunari eta erregetzari lotura agertu ohi da. XVI-XVII.eko agerpen folklorikoetako koreografiatan, Euskal Herrian bertan, dokumentatua dago errege mairuaren figura, ez figura negatibo gisa, mundua osatzeko beharrezko den "bestearen" errepresentazio prestigiozkoetan baizik. Pirinioetako beste eskualdeetan, eta Euskal Herrian bertan Zuberoako pastoraletan turko izenez, bizirik dirau errege mairuaren figurak.

Antzuolaren nortasunaren adierazgarri diren armarri eta banderaren azalpen "historikoan" agertzen den mairua errege bat da, eta ez nolanhikoa: Abd-ar-Rahman III.a, Kordobak izan zuen lehendabiziko kalifa, Al Andalusek izandako erregerik gorena, ama eta amona euskaldunak, Nafarroako errege-familiarenak, hain zuzen, zituena. Historikoki ez dago frogatzerik antzuolarrak Junkadiko borrokan parte hartu zutenik, areago, antzuolar komunitaterik bazenik ere 921. urtean, Gipuzkoa hitza bera ere lehen aldiz dokumentatzeko mende bete falta zela. Ziurtagiriak azaldutako datu historikoetan bestelako akatsak ere badaude. Haatik, balio historiko handiko agiria da ziurtagiria, ez aipatzen dituen datuengatik, benetan antzuolarren presentzia frogatzerik balego ere gehienez borroka handietan ematen ziren gertakari puntual eta anekdotiko batera mugatuko zatekeelako. Balio historikoa beste nonbait datza, ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka betierekoan,

non antzuolarrek mairuen aurrean ez ezik, edo haien aurrean baino gehiago haien aitzakian, gainerako gipuzkoarren aurrean jatorri heroikoa eta gauzen ordena justua berrezartzen baita (gauzez eta traizioz hildako errege nafarraren mendekua eta mairuek lapurtutakoaren berreskurapena da antzuolarren ekintza heroikoa, urtero ospatzen dena). Izan ere, batailen ospakizun koreografikoak arruntak ziren eta dira, Gipuzkoan bertan eta Gipuzkoatik kanpo oraindik ere, eta haietan, jatorria historikoa (Irun, Hondarribian) izan, duda-mudazkoa izan (Tolosa) edo mitikoa izan (Durango), balioa komunitate batek bere burua gainerakoen aurrean harro agertzeko eran da, ez dira gertakari historiko baten antzezpena izaten, gehienez, izatekotan, gogorapenaren aitzakian antolatutako autoafirmazio errito koreografiatuak.

Antzuolan ere ez da gertakari historiko baten antzezpena egiten, ez eta inoiz egin ere. Areago, Antzuolaren berezitasuna borroken ospakizun koreografiatuen aldean beste bat da: ziurtagiriak balio izango luke antzuolarren esku-hartze heroikoaren ondoriozko bandera ulertzeko (hau ere, XVII. mendeko banderen erakoa, ez X. mendekoa; Nafarroan ere ez dira falta mota bereko banderak, Erdi Aroko mairuen aurkako borroketan irabaziak, omen); baina ez du ulertarazten zer dela-eta ospatzen den Antzuolan errege mairuarekiko antzezpena, ziurtagirian (are gutxiago beste agiri historikoetan, Kordobako kalifaren gorabeherak zehatz-mehatz ezagunagatik) ez baita aipatzen errege edo bestelako buruzagi edo gerlari mairu preso hartu eta Antzuolara ekarri izana.

Hipotesi modura planteatzen da mitologia herrikoia izakia, errege mairua, beharbada Antzuolan ezaguna, eta gutxienez Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan XVI-XVII.eko hainbat jaietan dokumentatua, mitologia politiko-instituzionalarekiko nahasketaz edo, txertatu egin dela antzezpen koreografikoan, alegia, lehenago ez zeukan izaera historikoa gehitu zaiola. Izan ere, bitxia da gero antzezpena borroka batean oinarritzea eta borroka hartan aipatzen ez den zerbait antzeztea. Gehiago dirudi ongiaren eta gaizkiaren, edo bestela esanda baina esanahi berberarekin, "gutarren" eta "bestearen" arteko borroka betierekoari gehitu zaiola esanahi historiko bat, antzuolarren komunitate independente jaioberriari primeran zegokiona. Hain zuzen kutsu historikoak are garrantzi handiago eman ahal zion aurretik etortzen ahal zen antzezpen koreografikoari. Halako esanahi-aldaketak ez dira arraroak autoafirmazio erritoetan, helburua ez delako errittoa bera, komunitatearen nortasuna indartzea baizik, eta garaian garaiko eta tokian tokiko "berrinterpretazioek" holako zentzua izan ohi dute historialari eta folkloristen aburuz.

XIX. mende bukaeran hasten da antzezpena gauzaten, edo behintzat dokumentatzen, gaur egun ezagutzen den modura. Errege mairuaren figura zentrala da, baina hari ematen zion tratua, "bestearen" kontzeptuan gehiago da goia/beha eskeman oinarritua gu/bestea eskeman baino. Lehenago ez zen horizontala izango, baina etsaia azpiratzeko agerpena oso nabarmena da mende betez. Ezin da ahaztu garai hartan euskaldunek parte hartzen zutela Marokoko gerretan, eta mairuaren figura gehiago dator orduko mairu pobreenarekin Erdi Aroko errege batenarekin baino. Foruzaletasuna, euskaltzaletasuna eta espainiartasuna elkarren osagarri izan zitezkeen eta gehienetan izaten zen garaia da.

Mende bete geroago, bai mairu pertsonaia erreal eta gau egunekoarekiko pertzepzioa aldatu ahala, pertsonaia koreografikoarekikoa ere aldatu da. Gauza bera esan daiteke borrokak ospatzeaz, edo armadunen presentziaz, edo euskaltzaletasun/espainiartasun pertzepzioaz, elkarren osagarri izatetik elkarren aurkari izatera igarotzen baita askoren ustetan. Behiala nortasuna emateko edo indartzeko baliagarri izandakoak, egun, ordea, negatibotzat jo daiteke.

Alarde hitzetik abiatuta:

Alarde hitza da antzuolarren autoafirmazio erritua azaltzerakoan aintzat hartu beharreko hirugarren terminoa, Antzuola eta mairu hitzen ondoren. Goian esan bezala, Antzuola independentzia erabatekoa lortu aurretik hasia zen bere nortasuna aldarrikatzen/errepresentatzen, eta hain zuzen alardeen bidez egiten zuen. Alardeak, berez, edo behintzat jatorriz, Foruen garaiko derrigorrezko agerpen militarrek izaki, udalik ez zuten herrietan nortasuna aldarrikatzeko era bihurtu ziren. Hartarako bazuten nahikoa osagarri: lehenik eta behin, herriko plazan egitea, herritarren aurrean, nork eta gizon sasoikoek, herriko banderaren pean, agintarien agintepean, eta musika lagun zutela (erritmoa markatzeko izanagatik jai giroa indartzen zuena). Izan ere, agerpen militar haietan agintari zibilek egiten zuten agintari militarrena ere, hierarkia bera errespetatuz: alkatea kapitaina, erregidoreak sarjentuak... bandera ere Udal bandera zen. Antzuola bezalako herri bateko biztanleentzat Bergarako alkatearen agindupean eta Bergarako Hiriaren banderapean herritik kanpo, Bergaran, alardea egin beharra, ez zen arazo logistiko edo praktiko edo ekonomikoa, bere burua aitonen seme gipuzkoar batek ezin eramanezko sumisio ekintza baizik. Horregatik borrokatu zen, eta Antzuolako kasuan baita lortu ere, XVI. mendean bertan, alardea herrian bertan egitea, batik bat ohore kontu bat zen.

Herri nortasuna behin finkatuta, eta alardeen egiteko militarra ahuldu ahala, alardeak gero eta bakanago ziren Gipuzkoan, balio erritualik ezean udalek ez zituztelako antolatzen, Batzar Nagusiek eta Diputazioak behin eta berriro aginduagatik. Antzuolan bertan gertatu zen hori XVII. mendearen bigarren erdialdean. Harrez geroztik alarde izena agertzen da, baina ez zuten nahita ez esanahi militarra, edo militar hutsa izan beharrik.

Armadunen presentziak Erregimen Zaharreko Gipuzkoan, eta Gipuzkoatik kanpo, ez du adierazten nahitaez ospakizun militar bat, dela alarde, dela borroka baten gogorapena. Halako armadunak oso arruntak ziren bestelako ospakizunetan ere, ohorezko salbak egitearren. Hala ere, goian aipatutako alardeekin zuten antz formal handiagatik (armadunak ez ezik, agintarien presentzia, musikariak, bandera, ordena zehatz bat eta abar), halako ospakizunak alarde izenez ere ezagutzen hasi ziren; areago, Irun eta Hondarribian foru alardeak lehenagotik ospatzen ziren borrokengatik egiten omen zirelako, nominalismoa -izen beragotiko bi kontzeptuen nahasketa- aspalditik dator, Gipuzkoan eta Bizkaian gutxienez, non bolbora agertzen den jai edo desfile edo prozesioetan alarde hitza dokumentatua dagoen. Alardeak maiz jai egun batean egitea, baserritar nahiz kaletar guztiak elizaraino hurbilduko zirela aprobeztatzearen, Korpus egunean bereziki, lagungarri izan da nahasketa horretan, halako prozesioek armadunen ohorezko presentzia oso arrunta zelako.

XIX. mendean ezpatadun edo zizpadun gizonak ez ezik, armada napoleonikoetatik eratorritako beste osagai batzuk, hala nola zapurrak, ofizialeak, zaldunak kantinerak, artilleria... eta haiei zegozkien uniforme dezimononikoak (edo haietan inspiratu eta euskal tradiziozko janzkeren nahasiaz sortutako arropa folkloriko hutsak) gehitu ziren, kasu batzuetan oso nabarmen (Iparraldeko Besta Berri desfileak, Bidasoaldeko Alardeak), beste batzuetan osagai batekin edo besterekin (Tolosan, edo Antzuolako artilleria), nahiz eta zerikusirik batere ez izan ez Foru garaietako alardeekin, (artilleria edota zaldieria), ez ospatzen omen zen borrokekin (fusilariak mairuen kontra edo tolosarren Beotibarko borrokan?), ez zentzu erlijiosoarekin (baleztariak Markizeko Korpusean, zapurrak Besta Berrin...).

Trantsizio garaian, duela 30 bat urte, eta gaur egungo alardeen itxura modernoak Foruen ezabapenaren ondoren gorpuzten hasi zirela eta, nominalismo arazoa areagotu eta egoera soziopolitiko eta kultural berriarekin hobeki egokitzen zen pertzepzioa zabaldu zen: borrokak (nafarren, frantsesen edo mairuen kontra izanda ere, ez ziruditen jada ohoragarri) ospatzeko jaiak ez baina euskaldunen behialako autogobernu militarren gorazarrea, edo oroitzapen sikiera folklorikoak zirelako.

Berrero ere, garaian garaiko eta tokian tokiko errealitatearen pertzepzioa iraganera proiektatu eta autoafirmazio erritoei zentzu berriak eransten zaizkio.

Antzuolako Mairuaren Alardea, historia luzeko adierazpide folklorikoa izanagatik, ez da berez ekintza historizista bat, ez du inoiz bilatu gertaera historiko baten antzezpena, autoafirmazio kolektiboaren erritualizatzea baizik, hori bai, Antzuolaren historian oinarrituta. Antzuolaren historiarekiko pertzepzioa aldatu ahala, bada, erritua eta harekiko pertzepzioa ere aldatu da. Kontua da gaur egungo kinka ez dagokiola berez errituari, baizik eta harengan islatzen dela gure (*gure* hau antzuolar baino, euskal *gure* da) buruaren pertzepzioa, gaur egungoa iraganen proiektatua. Eta proiektio horretan gaur egungo erritua eta pertzepzioa ez datoz bat. Duela bi hamarkada egindako aldaketak ez dira erritua eta errealitatea berrero berdintzeko nahikoa izan, nahiz eta askoz ere gehiago hurbilazki biak: euskararen presentzia areagotu, mairuarekiko tratua leundu...

Antzuolako Mairuaren Alardeak balio historiko eta folkloriko handiak ditu. Areago, Antzuolan nola edo hala duela gutxienez lauhun urteko elementu folkloriko baten azken aztarna bizia izango litzateke, errege mairuarena. Balio historiko eta folkloriko horiek, ordea, ez dira izaten jende gehienak normalean balioztatu identifikatu ohi dituenak. Adibidez, Junkadiko borroka Antzuolarekin lotzea, historikoki gertatu ez arren, eta hari lotutako herri-nortasunaren armarrria, bandera -eta sinbolo bioi zentzua ematen dien ziurtagiria, zeinarengandik baitator oraingo diskurtsoa- eta mairuaren antzeppen folklorikoa, balio historiko handiko elementuak dira, Erregimen Zaharreko ideologia udal berri baten nortasuna indartzeko baliabide sofistikatu gisa landu eta elementu (armarrria, bandera, diskurtsoa, antzezpena) benetakoetan gauzatu, eta gaur egun bizirik. Baina historia hori ez da herri-pertzepzioan sinesten den balioa, hots, zenbat eta zaharrago historikoago, edo zenbat eta heroikoago historikoago. Ez, aitzitik ere, balio historikoa XVII. mendean komunitate juridikoki aske batek bere burua bermatzeko eraikitako jatorri historiko noble baten asmakuntza, komunitate hark bere buruari norainoko garrantzia ematen zionaren adierazgarri. Kontua da komunitate horrek gaur egun bere burua goratzeko ahaleginari eutsi nahi dion ala ez.

Era berean, eta gaur egungo ikuspuntutik, eta kontuan hartuta alardearen balio nagusia herritarren autoafirmazio erritua izatearena dela, eta ez gertaera historiko baten antzeppenarena, historia "heroiko" hura benetakoa ez izateak errazago egiten du beharrezko aldaketak eta moldaketak burutzea. Historiak ez du oraina "kateatu" behar, eta kasu honetan, gainera, "kate" horretatik askatzea errazago da, muin historikoa ez delako harako edo honako borroka, Antzuolaren nortasuna agerrarazteko gogoia baizik. Armarrriko errege (mairu? non nola azaltzen da hori

historikoki, Gipuzkoako armarritik hartua da eta!) lepotik lotzen duen urrezko kateari erreparatzerakoan, urrezkoa dela erreparatu, ez katea dela, nolabait esatearren.

Gaur egiten den antzezpenak, hala eta guztiz, ustezko jatorri harekin ere ez du lotura handiegirik; gehiago dirudi mairuaren izenean biltzen den "bestearen" prototipoaren eszenifikazioa: *amen, zu hor eta ni hemen*. Izan ere, balio garaikide handiak ditu Antzuolako Mairuaren Alardeak:

Foru alardeetan oinarritu ala ez, jai zibila da, Udalari (armarria, bandera, herriarenak dira, eta herriaren ordezkari zilegizkoa udala da, hantxe erakusten dira sinboloak, herriko etxean) Elizari batere loturik gabeko autoafirmazio erritua da, euskal tradizioko jaietan benetan bitxia eta gaur egungo errealitate laikoan balio handikoa.

Errege mairuari ematen ahal zaion tratamendua hobe badaiteke ere (eta hobetu behar da), funtsean bestearekiko errespetuan oinarritzen da: *indarrez ez etortzeko hitza eman duzunez gero, ez zaitugu indarrez tratatuko* da zabaltzen den mezua. Pirinioetako beste hainbat jaiak ez bezala, hemen ez zaio erregeri lepoa mozten, mairuak ez dira kristau bihurtzera behartzen.

Iparragirreraren bertsoek ustezko jatorri belikoa gogora ekartzen badute ere, foruetan oinarritutako euskaltasuna goratzen dute gehienik, non Antzuolak protagonismo berezia duen.

Armen erabilera ez dago borrokari, militarismoari edo indarrari lotua, luzimendu hutseko bolborazko deskargak dira, ohorezko salbak, euskal janzkera tradizionalen oinarritutako arropa folklorezkoa daramatenek eginak, jai giroa areagotu besterik egiten ez dutenak, hain zuzen antzezpenaren bukaeraren eta dantzaldiaren hasieraren artean eginak.

IKERLAN SOZIOKULTURALA

Azterketa historikoaren ondorioek ikerlan soziokulturalaren emaitzetan oihartzuna badute. Historiak berak Alardeari buruzko gaur egungo balorazioan eragiten du. Argi dago antzularrek iragana bereganatzen dutela. Izan ere, urteetan zehar aurrean geratu omen zena garai bakoitzari egokitzen zioten. Garrantzitsuena ez da, beraz, kontatzen dutena egia den ala ez, baizik eta nola interpretatzen den historia eta nola irudikatzen den.

Azterketa historikoan zein ikerlan soziokulturalan Mairuaren Alardeak antzularrei bere buruaren jabe izateko modu bat ematen diela azaleratzen da. Begi bistan dago iraganak eragin handia izan duela antzularren nortasunaren adierazpenean eta autonomiaren baieztapenean. Horri lotuta, Mairuaren Alardea autoafirmazio errito kolektibo bezala ulertu beharko da. Arestian aipatu dugunari jarraituz, Alardearen erritoaren bidez, iraganean gertatu omen zena jai giro batean nor bere nortasuna urtero sendotzeko aukera badu. Kontua da, erritoaren eta komunitatearen arteko harremana dela muina: lehen esan dugun bezala, biek ala biek elkarren beharra dutela, bestela erritoak ez du funtzionatzen edo komunitate zentzua galtzen da. Alardea, nahiz eta iraganean erreferenteak eduki, gaur egungo ekimena da, eta gaur egungo errealitatean txertatuak dagoenez gaur egungo baloreak, jarrerak eta kezkek islatzen ditu.

Azterketa historikoan oinarrituta ideia hauei jarraituz, ikerlanaren emaitzak hiru zatitan laburbilduko dira: lehenik, egun Alardeak duen esanahia eta garrantzia aipatuko ditugu; bigarrenik, Alardea, parte hartzea eta gizarteari buruzko hausnarketa txiki bat egingo dugu; eta azkenik, Alardearen eboluzioa eta aldaketak komentatuko ditugu.

Alardearen esanahia eta garrantzia

Lehenik, zer esan nahi duen Alardeak bertakoentzat galdetzea badugu. Eta horrekin batera, zer garrantzi duen herrian. Galdera honi erantzun baino lehen, beste bat luzatu behar dugu: "zergatik jakin nahi dugu zer esan nahi duen Alardeak herriarentzat?". Denok dakigu zerbait hobetu nahi dugunean alde aurretik komeni dela jakitea zenbateko garrantzia duen horrek. Zenbat eta garrantzi handiago izan, orduan eta inportanteagoa da horri buruzko erabakiak hartzea. Baina, Alardearen garrantzia esplikatu aurretik, antzularrentzat zer esan nahi duen adieraziko dugu. Ikerlanean jasotako emaitzen arabera, Alardea tradizioa, historia eta oroipena da. Tradizioa, urteen poderioz, ohitura bihurtu da eta horrek alde onak eta txarrak ditu:

alde batetik bizitza sozialaren osagaia da, herriaren identitatea transmititzeko tresna da; bestetik, freskotasunik ez du, zaharkituta baitago.

Garrantziari begira, bi puntu aipatzeko dira. Batetik, kultur eskalan mailarik gorenean dago. Antzuolako kultur ekintza guztietan, Alardea da lehengoa, hots, kulturaren goiko mailan goi-goian dago (historiagatik, aitzinako ohitura delako antzuolarren ustez). Hori dela medio, kultura transmititzeko baliagarria da herrian, arbasoengandik jasotako usadioa dugu eta belaunaldiz belaunaldi pasatzen da. Bestetik, bakarra da: egia esan, Mairuaren Alardeak ez du parekorik gure inguruan eta kanpotik ikusita Alardea da Antzuolaren ezaugarri nagusia.

Bi puntu horiek, bai esanahiak, bai garrantziak, herriaren nortasunera garamatzate. Baina identitatea gai korapilatsua da. Eta gainera ez dago argi zein lotura duen Alardeak herriaren nortasunarekin. Jendea bat dator esatean Alardea nortasunaren sinboloa dela; baina horretan ere ez dago erabateko adostasunik: identitatearen adierazle baitira beste ezaugarri batzuk ere.

Nire ustez, hor garrantzitsua da herriaren elkartasuna eta elkar bizitza. Eta hori hainbatetan ikusten da, hala nola, kultur elkarteetan (dantza, musika edo kirol taldeetan, zein hirugarren munduaren alde lan egiten duten taldeetan...) elkarlana nabarmena da eta hori da nik azpimarratu nahi dudana. Horretan ia denak bat datoz: herritarrak gai dira elkarrekin lan egiteko. Hala ere, beldurra ere badago zenbait herritarren aldetik, eta ez da Alardea galtzeko beldurra, baizik eta elkarrekin bizitzeko gaitasuna galtzekoa: indibidualismoa dela, lehia dela... Baina hori orokorra da, beldur hori globala da: ez da Antzuolakoa bakarrik. Horregatik azpimarratu nahi dut ez dela Alardea kezka nagusia, baizik eta elkar bizitza.

Alardea, parte hartzea eta gizartea

Eta horrek bigarren puntura garamatza, Alardeak bizitza soziokulturalean duen garrantzira. Bigarren puntu honetan herritarren parte hartzea dugu aztergai: Antzuolako parte hartzea bai urtean zehar, bai Alardean, nolakoa da?

Hasieran esan dugun bezala, ikerlan honen helburu nagusienetako bat izan da ulertzea Alardearen parte hartze eskasa. Eta horretarako egingo dugun azterbide hau: Antzuolako bizitza soziokulturala urtean zehar, udako jaiak Antzuolan eta Alardea bera. Azkenik, Antzuolako egoera kulturala gaurko gizartearen testuinguruan kokatzen da.

Argi dago aztergaia Alardea dela. Baina nola kokatuko dugu orain? Herriko bizitza soziokulturalean. Hortik abiatuta, udako jaiak gainetik aztertuko ditugu, Alardeari berari, hau da, kulturaren osagai esanguratsuenari, heldu aurretik. Eta bukatzeko, gaur egunera ekarri nahi ditugu hiru puntu horiek, parte hartzeari buruzko hausnarketa eguneratzearen.

Horren haritik galdetu dugu Antzuolako bizitza kulturala nola dagoen urtean zehar. Eta esan digute oso aberatsa dela: urtarriletik abendura hainbat jarduera egiten dituzte, hala txistularien emanaldia nola San Blas erromeria, hala Inauterietako Sorgin Dantza nola San Martzial eguna. Eta horretaz aparte, kirol arloko beste hainbat dituztela.

Dakizuen bezala, zenbait auzotako festak ere ospatzen dituzte. Ermitetara joaten dira eta erromeriak egin. Eta azpimarratzekoa dena hauxe da: festa guztien garrantzia, antzuolarren hitzetan, elkartzeko aukeran datza. Adibidez, erromerietan baserrietako auzoetan zehar ibilita, hirietara joandako gazteek sorterriko lagunekin elkartzeko aukera dute.

Hala ere, Inauterietan parte hartzea Alardean baino handiagoa da. Zergatik? Alardea zurruna eta zorrotza omen da; Inauteriak askoz libreagoak. Biak ekitaldi folklorikoak dira eta folkloreak gaur egun ez omen du erakartzen. Alabaina, Antzuolan, Sorgin dantza berezi bat berreskuratu dute, gizonek bakarrik dantzatzen dutena, sorgin jantzita; gonak altxatzen dituztenez, pikardia puntu bat badu. Antzinako dantza bada ere, argi dago dinamismo puntua ikusten zaiola. Horrez gain, inauterietan jendeak oso ondo pasatzen du, egunerokotasunetik kanpoko giroan murgilduta.

Gero galdetu dugu Antzuolako jaiak zer nolako garrantzia duten herritarren ikuspegitik, eta esan behar da jaiak buruzko iritziak asko direla: badira oso gogokoak dituztenak eta badira batzuk atsegin ez zaizkienak, eta erdibidean beste asko daude.

Inauterietan ez bezala, alardeko folklorea ez da ondo hartzen, ez da estimatzen. Zergatik ote da? Aipatu dugun bezala, oso serioa da, zorrotza, eta badirudi konpromisoz hartzen dutela parte, ez pozik, ez baitute uste ondo pasatzeko denik. Eta kontuan hartu behar da bai Inauterietan, bai Alardean, bultzatzaileak berberak direla. Hara, herrian hiru talde dira bertako folklorea sustatzen dutenak: dantza taldea, txistulari taldea eta abesbatza. Hirurek laguntzen dute inauteriak eta alardea antolatzen (lagundu bakarrik, ala arduradunak?). Hala ere, Alardean ez

dute lortzen inauterietan lortu duten parte hartzea. Saiatuagatik ere, ez dute sekula lortu alardean herritarrek inauterietan bezainbeste parte har dezaten.

Nolanahi ere, gehienek ondo ikusten dute alardea ospatzea, nahiz eta ez ikusi edo parte hartu ez. Honekin lotuta, batzuek diote Alardearen garrantzia aldakorra dela, bizitzan zein fasetan dauden: gaztetan apenas duen garrantzirik, baina edadean aurrera egin ahala alardeak irabazi egiten du.

Alardearen eboluzioa eta aldaketak

Azkenik, orain arte Alardeak nola eboluzionatu duen adierazi nahi dugu gaur egungo egoera ahularen zergatia aztertzeko asmoz. Prozesu osoa garrantzitsua iruditzen zaigu, urrats urratsez uler dadin nola dagoen gaur. Horregatik, geroan zer nolako Alardea nahi duten antzuolarrek aurkeztu baino lehen, iraganean egindako aldaketak erreparatzea komeni zaigu.

Jakin badakigu Alardean parte-hartze eskasa gaur egungo arazoa dela. Gizartearen eboluzioari erreparatzeak gako batzuk ematen dizkigu parte-hartze eskasa ulertzeko. Lehenik, kintoen parte-hartzea bazegoen. Lehen, kintoak soldaduskara joandakoak izaten ziren, hau da, 18 eta 21 urte bete bitartean soldaduska egin eta bueltan etorritakoak ziren. Herrira itzulitakoan, Alardean protagonistak ziren. Baita Santa Ageda bezperan ere. Gaur, ordea, ez dago kinto berririk.

Gaur egun, 18 urteko gazteek parte hartzen jarraitzen dute Santa Ageda festan, baina ez horrela kintoak Alardean. Zergatik ote da? Hasteko, kintorik ez dagoelako egun. Eta agian kutsu militar hori da jai bien arteko aldea, aitortzen ez bada ere. Ezin ahaztu dugu intsumisoen mugimendua – burura etorri zait hemengo alkate bat izan zela lehenengo alkate intsumisoa, hau da, soldaduska egiteari, uko egin ziona, ofizialki -. Bestalde, generoari begira, emakume eskopeterorik ez dago, nahiz eta emakumeei irekita egon. Esan dugun bezala, lehen kintoek zeramatzen eskopetak; orain ehiza taldearen esku dago hori, eta emakume bakarra dago ehiza taldean bertan. Adinari begira, Alardea iraunarazi dutenak helduak direla badakigu, gazte jendeak parte hartzen ez duelako, paso egiten du eta.

Jarraian, Alardearen beraren aldaketei erreparatuko diegu. Bi hartu ditugu hemen azpimarratzeko: bata, Frankoren agintaldiren bukaerakoa; bigarrena, 1987an egin ziren aldaketak. Badirudi Francoren garaian Alardea eskumako indarren esku zegoela: kapitaina bera Bergarakoa zen, eskuin muturrekoa. Gauzak horrela, erraz ulertzen da agintaldi haren bukaeran zergatik egin zuen jendeak alardearen kontra.

Herritarrek kontatu diguten bezala, garai hartan herriko gazteen mugimendua hasi zen eta besteen artean Alardeari aurre egin zioten.

1987an kultur zinegotzia zen kapitaina Alardean eta zinegotzi haren ekimenaz Alardea berritu zuten. Zer aldatu zuten? Euskaratu egin zuten, hasteko: kapitainaren diskurtsoa euskaratu egin zuten eta Espainiaz erreferentzia egiten zituzten esaldi batzuk kendu egin zituzten (besteak beste, baserrien izenak: batzuk bakarrik aipatu beharrean, erabaki zuten bat ere ez aipatzea). Beste kontu bat, oso esanguratsua: Mairua ikusteko eta tratatzeko era. Lehen, Mairuari durbantea kendu egiten zioten, lurrera bota eta zapaldu. Pentsatu zuten, ordea, ezin zela arrotzaren ikurra hala iraindu, hura zela euskaldunari txapela zanpatzea bezala. Eta horregatik durbantea kentzeari eta zanpatzeari utzi zioten.

Hirugarrenik, jantziak aldatu zituzten. J. A. Urbeltzen aholkuei jarraituz bai eskopeteroak bai danbor joleak dotoreago jantzi zituzten: eguneroko arropa jantzi ordez, jai egunetako arropa jantzi zieten. Danbor joleei, beraz, koloretako zintak jarri zizkieten praketan. Horiek dira garai hartako aldaketa esanguratsuenak.

Orain etorkizunari begiratu diogu: zer aldatu nahi dugu oraingoan? Hogeitaz pasa dira alardea azken aldiz aldatu zenetik eta azken hogeitaz urteotan gizartea aldatu egin denez, alardea ere egokitzeke garaia da. Egun, zerk bultzatzen gaitu alardea aldatzera? Batetik, parte-hartzea oso eskasa dela, bai Alardean bai ikusleen artean; bestetik, mairuaren irudikatzearekin hainbat kritika jaso ondoren, antzuolarrak ez dira eroso sentitzen antzezpenarekin.

Bukatu baino lehen, oso labur azalduko ditugu proposatu digutena; gero gure hausnarketaren arabera, gomendatuko ditugunak adieraziko ditugu:

- hasteko, gauza formal batzuk aldatu nahi dituzte batzuek: ordua, batez ere; eguna, data, berriz, ez.
- beste batzuek Alardearen forma bera aldatuko lukete, antzezlana bestelakotuz. "Anbiziotsuenek" pastoralaren ereduari jarraitu nahi diote: Lazkaoko Astotxo eguna eta Getarian Elkanoren harrera bezalako antzezlana egin nahi lukete, nahi luketen herritar guztiek parte har zezaten. Hala ere, aitortzen dute lan handia izango litzatekeela hori.
- beste aldaketa xumeago bat ere proposatu digute: adibidez, kapitainaren diskurtsoa kapitainak bakarrik egin beharrean elkarrizketa egitea kapitainaren eta erregeren artean.
- kontua da elkarrizketa horri zerbait gehituko lioketela, adierazteko aurreko guda bukatu zela eta orain bakearen alde gaudela, hau da, gauden guztiok elkarrekin ondo bizitzearen alde.

- azken finean, proposatu dizkiguten aldaketa garrantzitsuenak Mairua irudikatzeko moduarekin lotuta daude. Alde batetik, Mairuaren irudia, figura bera, duindu beharko da, hainbaten iritzian eta errege bat bezala agertu beharko luke. Bestetik, Mairua bakarrik, isolatuta ibili beharrean, bere lagunez inguraturik atera behar da: Antzuolako kideekin orekatzeko nahian, Mairuen taldea izan dadila.
- horrela, Alardearen giroa alaitu egingo luke, zenbat pertsonaren ustez, Alardea serioegia baita.

Horiek guztiak gehi azterketa historikoan eta ikerketa sozio-kulturalean agertutako elementuak aintzat harturi, hona txostenean agertutako gure proposamenak, zuek hausnartu eta zeuen erabakiak har ditzazuen.

PROPOSAMENAK

Claro, nik ez daukat barita magikoa, baina...

Proposamen hauek antzuolarrek berek iritzietan emandako proposamenetatik abiatzen dira, azterketa historikoak eta ikerlan soziokulturalak agerrarazitako ondorioak ere aintzat harturik:

Aldaketa nagusiak

MAIRUAREN IRUDIA DUINDU:

"ez dakit planteau leikeen be, igual kuadrila ezberdinak eta bakoitza bere koloreakin."

- Astotik zaldira pasatzea
- Janzkera dotorea, erregeen kolorea, purpura, nagusitzen dena, 1899an bezala; baina berdea ere gehitu, musulmanen kolorea ez ezik naturari lotzeko, beste interpretazioak ahalbidetzeko, horietan sakonduko ez bada ere.
- Larruazalaren kolore bereizgarria mantendu, baina ez itxura zikina emanda.
- Ihes egiteko edo makurtzeko keinurik ez, ez baitagokio halakorik beste kultura baten ordezkariarena egiten duen bati, are gutxiago erregetzak ematen zuen sinbolismoaz jantzia badago.
- Euskarazko hitz batzuk: zalditik esanak, parekotasuna gehitu bertako kultura ordezkatzeko duen antzuolarrarekin.
- Laguntzaileak eraman, orain daramatzen zaindarien ordezkari, eta haiek ere janzkera eta kolore bereizgarri deigarri baina duinez markaturik.

DISKURTSOAREN EDUKIA LEUNDU

"Beste diskurtsoa, Antzuolak Naparrakin hartu emana eta hor bukatu behar dula, ez Castilla-Leongo errege eta zeak."

Diskurtsoa gehiago zentratu herri batek, Antzuolak bezala Euskal Herriak, bere nortasuna gordetzeko duen eskubidean, besteekin elkarbizitzan aurrera egin ahal izateko, eta beste herrialde eta kulturetako jendeak bereganatzeko prest dagoela adierazi, non eta indarrez (arma hitza baino gehiago halako terminoak erabiliz), inposatzen ez bazaio kanpoko kulturarik. Historia erreferente gisa, baina Antzuolak

aspalditik bere nortasuna defenditzen duela adierazteko, bai kanpotarren aurrean, bai auzokoen aurrean. Gipuzkoar herria baino, euskal herri bat dela adierazi, eta beste euskaldunak laguntzeko prest agertu izan historikoki, eta hala jarraitu nahi duela: iragana etorkizunari heltzeko tresna. Tonu militar edo indarkeriaren gorazarerik ez. Armarrria, eta batez ere bandera, Antzuolako ikur bereizgarritzat goratu, ez etsaiari erauzitako trofeotzat.

ANTZEZPENA EGOKITU

Mairuaren eta buruzagiaren arteko antzezpena goian aipatutako bi elementuen aldaketen arabera egokitu: parekotasunez jokatu biek, ez garaile/azpiratu jokabiderik agertu. Hika egitekotan, biek hika. Dena den, zuka lehenestea hobe, besteren artean herri/kulturabien ordezkari direnez, duintasuna eta ez hizkera sexista, hika egiteak toka dakarrelako, eta ordezkariaren papera nabarmendu behar litzateke, gizonezko izatearena baino gehiago. Bukaeran mairuaren eta bere jarraitzaileen presentzia arkupeetara baztertu beharrean, plazako alde batean geratu eta bolborazko salbetan presente egon; mairu jarraitzaileek ere ohorezko salbak egiteko aukera aztertu.

KOREOGRAFIA BIZITASUNEZ "ALAITU"

"Lehen desfilea, pin, pan, pun eta bukatu da."

Musika gehiago eta alaiago erabili, desfilean edota plazan.

Txistulariak antzuolarrekin gehiago lotu, eta dultzaina joleak mairuarekin (tresnaren jatorria ere arabiarrengandik omen datorkigu eta).

Iparragirrereren bertsoak Alardean integratu diren bezala, dantzaldia ere integratu, eta ez segidan datorren zerbait bezala aurkeztu.

Danborrarien galtzetako litsak edo janzkeretan bestelako aldaketa formalak aldatzeko aukera aztertu.

Goian aipatutako aldaketak egin baino lehen, hausnarketarako eta azken erabakiak (nork noiz, nola...) hartzeko **lan-taldean ezarpena proposatzen da**, honako bi batzordeotan banatuta:

HISTORIA LANTZEKO TALDE BAT SORTU

"Hor bai pentsatzen jat ondo orain talde bat sortuta dagola eta bueno, nolabait lan bat egiteko gaur egunian interesantea dela pentsatzen jat."

Herritarren sektore batek historiari zer nolako garrantzia ematen dion ikusita, eta mintegian beste Alardeetako (Legazpi, Elorrio, Tolosa, Bidasoalde, Markizeko...) kideek iradoki bezala, osagaien aldaketak egin baino lehen erreferente historikoak bilatu eta azaldu egingo lirateke, proposamenak egiterakoan. Historia esatean zentzurik zabalenean esaten da: historia beliko-instituzional, hots, "ofizialaz" gain, mitologia, ohiturak, folklorea eta bestelako agerpide kulturalak ere kontuan hartuko lituzkeen kontzeptua izango litzateke, iraganetik eta inguruko orainalditik ikasbideak eginik.

ALDAKETAK EGITEKO TALDE BAT SORTU

"Nik azkenean idea batzuk igual, hasi ezkerro pentsatzen aterako dira, baina bueno, hortarako beharko litzake pertsona bat eta herriko taldetxo bat egin."

Era berean, eta berriro mintegietako esperientziaz ikasirik, iragana erreferente bat baina Alardea gauza bizia eta beraz orainaldikoa dela inoiz ahaztu gabe, aldatzeko proposamenak gaur egungo errealitateari egokitzeko eta hobetzeko irizpideak markatuko dituen batzorde bat osatzea gomendagarri da. Izan ere, halako batzorde batek Alardean bertan egiteko proposamenak ez ezik, inguruan, betiere jai giroan Alardearen kontzeptuaren aldeko proposamenak egin ditzakete, zuzen-zuzenean erritoan txertatzen ez badira ere, hala nola:

Alarde ondoko eta dantzaldia bitarteko askaria Udaletxe barruan egin beharrean kanpoan eta dantzaldiaren ondoren egitea, herritarrek ere parte hartzeko (sagardo upela, haragi errea...)

Umeak Alardean bertan ez baina nolabait harekin identifikatzera eraman ditzakeen ekitaldi bat antolatzea, adibidez, aitona-amonei haurtzaroan jaiak eta bereziki Alardea nola bizitzen zuten galdetzea, argazki bilduma egitea, bertsoak ikastea... Belaunaldien arteko esperientziak egin izan dira beste tokietan eta helburuak zein metodologia finkatzeko tenorean baliagarriak izan daitezke.

Erdi Aroko azoketan ikusi ohi diren produktu magrebiar tipikoen txosnaren bat-edo ezartzea, bertako jakiak, lurrinak, eskulanak eta abar ezagutu eta eskuratu ahal izateko...

Bukatzeko, ikaragarritzko garrantzia du, aldatu edo bere horretan mantendu, ezein proposamen egitekotan, ahalik eta kontzentzurik handiena bilatzea herrian, behintzat kontra egin ez duen sektorerik, txikiena izanda ere, ez dela jakitea. Aldaketak ere tentuz eta gradualki egin beharko lirateke, poliki-poliki, ondorioak

hobeto neurtzeko eta behar besteko "zuzenketak" egiteko ez ezik, orain dagoen Alardearekiko atxikimendua murriztu eza baina areago dadin, atxikimendu gehiago batzen joan dadin.

Azken konklusio gisa:

Garbi dagoena hau da: alardeak jarraitu egingo du, gehienak horren aldeko baitira, baina jarraitzeko gogoaz bezain argi eta garbi dago alardea bestelakotu beharra dagoela. Orain, Antzuolarrak dira erabaki beharko dutenak etorkizunean zer nolako Alardea nahi duten.

